

Internet, joerak eta etorkizuna

Aste honetan Goienak CodeSyntax-ekin batera duela bi urte Sustatu euskarazko weblog euskalduna sortzearekin eman zuen Interneteko lehen pausua sendotu eta indartu egin du, eskualderako Goiena.Net albistegi berria ateratzerakoan. Tartean, trebetasun handiz zenbait Udal atari korporatibo kudeatzen dihardute.

Gaur egun Internet izenarekin ezagutzen dugun gertaera soziala, kulturala, soziologikoa eta komertziala 1960ko hamarkadan hasi zen AEB-etan, armadaren proiektu bezala. Beraz, asmatu zenetik pasa dira urte batzuk, baina garrantzitsuena ekimen horri eta geroago izan diren garapen askori esker, gaur egun sei mila miloi pertsonak baino gehiagok bat batean informazioa sortu, bilatu eta elkartrukatu dezaketela.

Norberak ematen dion erabileraren arabera, Internet lantresna, aisialdi tokia, negozioetarako tokia, ... edo agian, sekulako anabasa izan daiteke. Baina, azkenean konturatuko gara Internet komunikabidea baino ez dela, eta ez da gutxi.

Komunikabidea da posta, prentsa, irratia, telebista,... bidali eta jaso bideratzen neurrian. Gainera, ohiko beste bide horiekin konparatuz hainbat abantaila ditu.

Neurri handian Internetek beste komunikabide guztiak barneratzen ditu. Prentsa idatziak argazkiak eduki ditzake, baina ez telebista edo filmatutako irudiak, irratia ezta, telebista ez da ondo moldatzen testu idatziekin, ... Aldiz, Interneten dena ahal dugu izan, batera eta bat batean, segundoetan.

Medio tradizionalen aurrean normalean jokaera pasiboa dugu. Baina Interneten aurrean gure jokaera nahi dugun erakoa izan daiteke,

informazioa jaso baina baita ere, nahi dugun beste sortu eta transmititu dezakegu.

Garai batean telefonoak, bisita txartel dotoreak edo publizitate panfletoak ematen zuten bezala, gaur egun enpresen eta erakundeen lehen irudia Internetek ematen du.

Horretaz gain, salmentetarako bide berri, marketinerako bide, formakuntzarako tresna, abantaila lehiakorraren sorbururako, ezagueraren kudeaketarako tresna bezala,... eta askoz gehiagorako erabili dezakegu Internet jada.

Internetek erronka berriak ekarriko dizkigu eta erantzuteko prest izan beharko dugu. Etorkizunari begira joera nagusi batzuk aipa ditzakegu:

- Erabiltzaileak gora egingo dute, baita ere webguneak. Ezinezkoa da zehatz-mehatz jakitea Internetek duen hazkundera, baina egunez egun etengabe gorantz doa. EITO (European Information Technology Observatory) -ren arabera 2006 urtean 950 miloi erabiltzaile izango dira mundu osoan. Urte horretarako, populazioaren %65a Internet erabiltzaile izatea aurreikusten da Euskadi Informazio Gizartean planean.

- Banda zabaleko konexioak gehitu egingo dira eta horrekin datuak transmititzeko abiadura azkartu egingo da. Erabiltzaileekin batera, trafikoa gora egingo du eta kapazitate premiak handitu egingo dira, ondorioz, azpiegitura hobeak ipiniko dira martxan.

- Haririk gabeko Internet zabaldu egingo da. Erakundeetan, etxebizitzetan eta enpresetan harien desagerpena joko da. Prezioen jaitsierak, segurtasuna handitzeak, eta bertsio azkarren agertzeak erraztuko dute iraultza teknologiko berri hau eta zenbaitek Internet era handian aldatuko duela diote.

- Software irekiaren erabilera zabaltzea. Sistema komunitarioek ordenagailu pertsonaletara eta enpresetara ailegatzeko heldutasuna lortuko dute. Ezagunak diren aldaketaren aurkako erresistentziak direla eta, oraindik urte asko pasatuko dira Linux bezalako software irekiak bulego eta etxe gehienetan ezarri arte, baina joera hori da. Gainera, logikoena euskara teknologietan garatzeko software erabilgarria aukeratzea dirudi.

- Tarte digitala handitzearen arriskua gehitu egingo da. Herritar guztiek teknologia berriak erabil ditzatela izan behar du apustua, baina baliteke kolektibo batzuek erabilpen horretatik kanpo geratzeko arriskua gehitzea. Besteak beste, baztertzeko arriskuan dauden giza taldeen alfabetatze digitala etorkizunerako erronka da.

- Ingelesa zen nagusi edo bakarra Internet hastapenetan, baina hizkuntzen aniztasunak bere lekua hartzen ari du Interneten. Bizirik izateko, hizkuntza gutxitue Interneten izan beharko dute edo zaila egingo zaie inon egotea.

- Gero eta eragin sozial handiagoa izango du Internetek eta orokorrean Informazio eta Komunikaziorako Teknologiek. Teknologia hauen giza baliagarritasunak sakon aztertzeaz daude, eta baita zer-nolako eraginak - onak eta txarrak- dituzten pertsona, enpresa eta erakundeengan.

Erronka global guzti hauei eta etorriko diren beste batzuei, aurre egin beharko dio bailarak eta Goienak bereziki. Nora joan ez dakienarentzat haize egokirik inoiz ez dagoela maiz esaten da prospektiban, kasu honetan behintzat, Goienak argi du Komunikazio Zerbitzu integrala eta euskalduna izan nahi duela, eta etorkizunerako bide horretan ezinbestekoa duela Internetek ematen dizkigun aukera guztiak erabiltzea.

Debagoiena eskualde digital aurreratua eta euskalduna izateko bidean bultzakada handia eman dio Goienak orain estreinatzen duen Goiena.Net zerbitzuarekin. Zorte on bidean! (Eibar, 2003/12/01)